



Gure helburua:

Gaitasun intelektualeko ezintasuna duten pertsonen eta euren familien bizitza sustatu.

SARRERA

1962ko irailean, gaitasun intelektualeko ezintasuna duten pertsona talde baten gurasoek eta lagunek Asociación Vizcaína Pro-Subnormales zeritzona eratu zuten, gaur egun GORABIDE, Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Elkarte Bizkaitarra. 1963an “Onura Partikularreko” erakunde izendatu zuten eta 1970ean “Onura Publikoko” erakunde izendatu zuten. Bere kezkarik handiena, estatutuetan islatzen denez, honakoa zen, “arazo honen gaineko kontzientzia publiko esnaraztea familia arloan zein arlo sozialean”, baita “laguntza zentroak sortzea”, orduan ez baitzeuden.

GORABIDERi zentzua ematen dion xedea eta erakundearen jarduera osoa bultzatzen duena honakoa da: **ezintasunaren jatorria kontuan izan barik, gaitasun intelektualaren ezintasuna duten pertsonak, herritar diren aldetik dituzten eskubideen defentsa.**

Xede nagusi hau lortzeak zera dakar, GORABIDERen ikuspuntutik, hiru norabide desberdin baina osagarritan jardutea:

- **Multzo sozialean eragitea**, gizarteak kontzientzia argia har dezan, eta gizarte osoak, gaitasun intelektualaren ezintasuna duten pertsonak onar ditzan eta euren eskubideen onarpenean eta gauzatzean lagun dezan.
- **Kasu bakoitzean beharrezkoak diren laguntza indibidualak ematea eta zerbitzu orokorrak sortzea**, oinarri komunitariokoak, gaitasun intelektualaren ezintasuna duten pertsonen eta euren familien ongizatea eta bizi kalitatearen hobekuntza etengabea lortuko dutenak.
- **Zerbitzuen sortze zuzena**, egoki irizten zaionean.

Gorabide FEVAS-EHATZen dago (Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa) baita FEAPSen ere (Confederación Española de Organizaciones a favor de personas con Discapacidad intelectual).

GORABIDEREN ZERBITZUEN ORIENTAZIO ETA KUDEAKETAREN PRINTZIBIO FILOSOFIKOAK

GORABIDE irabazi asmorik gabeko Elkarte gara, gaitasun intelektualaren ezintasuna duten Bizkaitarrei eta euren familiei laguntza emateko helburua duena.

Gure eginkizuna eta helburu nagusia honakoa da, gure bezeroei eta euren familiei eta gure erakunde-bezeroei eta bezero pribatuei konponbideak eta proposamen aurreratuak ematea, baita kalitateko zerbitzuak ere. Horrela, gaitasun intelektuala duten pertsonen eta euren familien bizi kalitatea hobe dadin laguntzen dugu, baita bezeroen asetasunean eta gizarte bidezkoagoa eta aniztasunean elkartuagoa sustatzean ere.

Lortzeko, honako hauek onartu ditugu:

- Gaitasun intelektualaren ezintasuna duen pertsona gure jarduera osoaren jomuga da eta gure kideei eta euren familiei begirunezko arreta pertsonalizatua da gure betebeharrak eta xede nagusia.
- Sentsibilizazio soziala gure Elkartearen rola da.
- Gure zerbitzuen kalitatea eta etengabeko garapena, Ikerketan, berrikuntzan eta Gorabide osatzen dugun guztion Ezagueraren kudeaketa aktiboan oinarrituta: Erabiltzaileak, bazkideak, senideak, profesionalak eta boluntarioak.
- Erakundeko pertsona guztien asetasuna eta garapen profesionala, eraginkortasunaren eta kalitatearen gakoak baitira.
- Kalitate osoan eta hobekuntzan oinarritutako kudeaketa, baita lidergo eraginkorra eta parte-hartzailea, hau baita gure konpromisoaren bermea.

Ondorioz, honakoa lortuko dugu:

- Gure erabiltzaileen eta gure bezeroen asetasuna eta Gorabiderekiko euren fideltasuna.
- Langileen eta bazkideen inplikazio aktiboa Gorabideren proiektuan eta bere balioaren ekarpena.
- Elkartearen garapen integrala.



Gorabide **hiru printzipio filosofiko osagarritan** oinarritzen da bere Zerbitzuak ematean: etikan, bizi-kalitatearen hobekuntza eta kudeaketa-kalitatean.

Etika

Gorabiderentzat, honako baloreak dira bere jardueraren ildo nagusiak:

- PROFESIONALITASUNA
- PARTE-HARTZEA
- ALDARRIKAPENA
- BERRIKUNTZA
- ETENGABEKO HOBEKUNTZA
- GARDENTASUNA

Horiez gain, onartzen du FEAPS-en Kode Etikoa eta etorkizunean Laguntza Etikoko Batzordea eratzeko eta antolatzeko Bioetikaren garapenerako proiektu bat garatzen ari da.

Bizi-kalitatearen hobekuntza.

Gaitasun intelektualeko ezintasunaren kontzeptuak bilakaera izan du denboran zehar, ezintasun hau patologiatzat hartzen zen garaietatik gure egunetara arte. Gaur egun Gaitasun Intelektualeko Ezintasunaren Elkarte Amerikanoak (A.A.M.R.)¹ bultzatzen duen definizioa onartu dugu:

“Gaitasun intelektualeko ezintasuna muga garrantzitsuei buruz ari da gaur egun. Bere ezaugarria hau da, funtzionamendu intelektuala batez bestekoaren azpiko dela era esanguratsuan; aldi berean, trebetasun adaptatiboetako arlo bi edo gehiagotan elkartutako mugak daude: Komunikazioan, Auto zainketan, Etxeko Bizitzan, Trebetasun Sozialetan, Komunitatearen Erabileran, Auto direkzioan, Osasunean eta segurtasunean, Eskola Eduki Funtzionaletan, Aisialdian eta lanean. Gaitasun intelektualeko ezintasuna 18 urte bete baino lehen agertzen da.”

Definizio honek, atzerapena duten pertsonen eskaini beharreko zerbitzuak bizi-kalitatearen hobekuntzarantz bideratzen ditu. Bizi-kalitatearen hobekuntza hau, osatzen duten zortzi dimentsio nagusitan gauzatzen da:

1. Emozio-Ongizate
2. Pertsonen arteko harremanak
3. Ongizate materiala
4. Garapen pertsonala
5. Ongizate fisikoa
6. Autodeterminazioa
7. Gizarteratzea
8. Eskubideak.

Kalitatea kudeaketan.

Gorabidek, jakin badaki, erakunde zerbitzu emailea den aldetik, zerbitzuen kalitatea kudeaketaren kalitateari lotuta datorrela.

Bezeroarenganako joera, pertsonak sartzea, etengabeko hobekuntza edo jardunbideen hobekuntza, besteak beste, ezinbesteko arloak dira kudeaketa eraginkorrean.

Ondorioz, Gorabidek Kalitate Osorako eredu filosofikorako Bikaintasunaren Eredu Europarra onartu du (EFQM).

¹ American Association on Mental Retardation. Retraso Mental. Definición, clasificación y sistemas de apoyo. Ed. Alianza Psicología. Madrid 97.



EMANDAKO ZERBITZUEN LABURPEN-TAULA (*)

(*) Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzaz

ZERBITZUA	ERABILTZAILE KOPURUA	ZENTRO KOPURUA	ZERBITZUA	ERABILTZAILE KOPURUA	ZENTRO KOPURUA
EGOITZA ZERBITZU UNITATEA					
Atxarte	69				
Sopuerta					
Haizea	24	4			
Eguzkia	52				
Basauri	45				
EGOITZA ERTAINEN ETA ETXEBIZITZEN ZERBITZU UNITATEA		4	PRESTAKUNTZA ETA PARTE-HARTZE ZERBITZUAK.		
- Egoitzak	25		Programak	Talde 1	
Lanestosa	20		-Eskola umeen familiak	Talde 1	
Getxo	19		- Nerabeen “	Talde 1	
Plazakola	18		- Gazteen “	Talde 1	
Dolaretxe		6	- Rett Sindromedunen “	Talde 1	
- Etxebizitzak: aldizkako laguntza/mugatua	14		-Neba-arreba taldeak	Elkarteak	
General Salazar	8		- Elkarreentzako laguntza		
Deusto-1	4		-Hitzaldiak eta prestakuntza mintegiak.	hilekoa	
Deusto-2	3		- Berriak buletina.	2 talde.	
Deusto-3	4		-Auto defendatzaile taldeak.		
Calzadas	11	5			
Sestao					
- Etxebizitzak: bizimodu independenterako laguntza	9				
- Bizimodu erdi- independentea					
FAMILIA LAGUNTZARAKO UNITATEA	28	1	HEZKUNTZA BATZORDEA		
Aldi baterako			-Zuzendaritza	Talde 1	
Egonaldietarako Egoitza OLA			Batzordearen Ordezko Batzordea		
Atentzio Goiztiarrerako Zerbitzua	15	1			
Eguneko Zentroen Zerbitzua	161	10			
Gizarte-lan zerbitzua	4.369	5 Gune			
AISIALDIRAKO ZERBITZUA			GERENTZIA.		Gorabideko Zehar-sailak
Klubak	479	18	-Administrazio saila		
Koloniak eta udarako eskaintzak	455	19 txanda	-Giza baliabideen saila		
Integrazio programak	28	-	-Sail teknikoa eta sistemena		
Kirol jarduerak	36	-			
Jarduera zentroak	41	3			
Asteburuko irteerarako programa	620	-	BAZKIDEAK:	2.932	
IMERSO oporrak	112		Numerarioak.	2.019	
Jarduera kulturalak	38		Laguntzaileak.	913	